

Zergatik ez gara zorra kobratzen hasi? steilas-ek ere zorraren inguruko akordioa nahi du, ez edonolako

Laster bi urte beteko dira 2011n *Gizarte Ekimeneko* Ikastetxeetan hasitako gatazka kolektiboari amaiera eman zion akordioa sinatu zenetik. Akordioaren puntu bat (8.a) " *bildutako soldata galeren ordainketa*"ri dagokio, 2015eko abenduaren 31 arte sektorean ezarritako lan sari murrizketaren ondorioz metatutako zorra itzultzeari alegia. Zehazkiago 2012, 2013 (urte erdia), 2014 eta 2015. urteetan zehar egindakoak.

Akordioak berak dioenez, 2016an itundutako zenbait irakasmailetan bete direnez aipatzen diren finantziazioaren inguruko hobekuntzak (ordezkapenak, Kontsultore/Aholkulari) aurreko maiatzean zorraren lehenengo zatia -2012. urteko zati bati dagokiona- kobratu behar izan genuen. Lau hilabete beranduago auziak bere horretan jarraitzen du bi arrazoiengatik. Batetik *Kristau Eskolak* ez du inoiz izan prisarik gai honekin. Bestaldetik, sindikatu batzuk ez dugu bat egiten Akordioaz egiten den interpretazioarekin eta ez gaude prest irizpide -gure ustez- murriztaile, kaltegarri eta diskriminatzaileei oniritzia emateko, gure sektoreko hainbat gizatalderi kalte egiten dietelako.

Atalka:

- Bi aldekoen esfortzuarekin (sindikatuena eta patronalena) 2016ko irizpide zehatzak adostu ditugu. Akordioa dago kobratu beharreko zenbatekoen inguruan baina prozedura ez da abian jarriko 2017tik aurrera indarrean izango diren irizpideak adostu bitartean. Azken honek zentzua du txantaje moduan erabiltzen ez den bitartean.
- Arazoa da 2017rako adostuko diren irizpideok aldaketarik gabe aplikatuko direla zorra osorik kitatu arte; behin betikoak izango dira. Beraz, zorrotz jokatu behar dugu. Negoziazioetan **steilas**-ek berariazko (Lanbide Heziketa eta Batxilergoak) izaera duten ikastetxetako langileentzako ondorio kaltegarria izan zezakeen oinarriko interpretazio desberdina egiten zuela adierazi zuen. Une honetan ez dago kontsentsurik akordioa interpretatzeko orduan eta hainbat sindikatuen jarrera ere ez da oso argia.

Gakoa da **steilas**-ek ez duela uste hezkuntza maila batzuetan finantziarioaren zenbait kontzeptutan egon daitekeen egiturazko defizita langileek bere gaian hartu behar dutenik. Ez zen akordioa sinatu genuenean esan zigutena eta zalantzan jartzen dugu beste sindikatuek horrelakorik onartzen zutela jakinik hain erraz sinatuko zutenik.

Ez da bigarren mailako auzia: sindikatuok patronalen proposamena onartuz gero azalduko beharko dugu zelan onartzen dugun -finantziario aldaketarik ez badago- langile askok urteetan zorraren xentimorik ez kobratzera behartzen duen akordioa, beste langile askok kobratzen duten bitartean. Edo zergatik onartu behar dugun -bere garaian esandakoaren aurka- gure lan baldintzak eta ikastetxeek jasotzen duten finantziarioa, besterik gabe, lotzea. Ez da kontu makala, beraz!

steilas-ek ez du patronalaren proposamena, dagoen bezala, sinatuko. Badakigu batzuk saiatuko direla gu zorra ordaintzea edo negoziatorako beste esparruen aktibazioaren blokeoaren erantzule gisa jartzea. Akordio batera iritzi nahi dugu baina ez edonolako. Une honetan mahai gainean dagoen proposamena hobetu daiteke eta lanean aritu gara horretarako. Hausnartu ondoren, uda baino lehen eskatzen genuenarengandik mugitu gara, gatazka osoan zehar egin genuen bezala, eta, beti akordiora lortzeko helburuarekin.

Lehen urratsa, jakina, beste sindikatuekin erdibideko formula bat adostea izango da, ondoren Batzorde Paritarioan aurkeztu ahal izateko. Horretan gaude. Datorren asteazkenean, irailak 28, beste sindikatuei proposamen bat aurkeztuko diegu. Gure ustez hiru arrazoi daude proposamena onartu dezaten:

- 1.-Proposamenak Akordioak diona *Kristau Eskolak*, bere garaian adostu nahi zuenarekin parekatzen du, akordioa idatzi zenean ez zelako horrela jaso. Patronalak eskatzen dionari egokitzen zaio, baina baldintza batzuekin.
- 2.-Ikastetxe gehienek ordainketari ekitea -etenik gabe- ahalbideratuko du, finantziarioan aldaketarik izango ez balu ere.
- 3.-Egia bada hainbat ikastetxeei beste ahalegin bat eskatzen diela ez du, inolaz ere, bere bideragarritasuna kolokan jartzen.

Ziur gaude beste sindikatuentzat ere proposamen interesgarria dela. Elkarrizketak emankorrak izan daitezten nahi dugu, sektoreko patronalei sindikatuen proposamen bateratua aurkeztu ahal izateko.

Informatzen jarraituko dugu



www.steilas.eu

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eu

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eu